



LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURU ANDREA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osoko bilkurak, 2018ko azaroaren 28an egindako saioan, ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du (173/2018 zenbakiarekin erregistratu da); hain zuzen ere, **Euskadiko kooperatibei buruzko Legearen aurreproiektuari** dagokiona (**Erref.: DNCG_LEY_162180/17_12**).

Eztabaidatu ondoren, aho batez eman du irizpen hau. Batzordearen iritzia Calonge Crespo batzordekide jaunak adierazi du.

PRESIDENTEA:

Sabino Torre Díez jauna.

PRESIDENTEORDEA:

Xabier Unanue Ortega jauna.

BATZORDEKIDEAK:

M^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea.

Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.

Fatima Saiz Ruiz de Loizaga andrea.

Imanol Zubizarreta Arteché jauna.

Ion Gurutz Echave Aranzabal jauna.

Iñaki Calonge Crespo jauna.

Miren Izaskun Iriarte Irureta andrea.

IDAZKARIA:

Jesus M^a Alonso Quilchano jauna.

176/2018 IRIZPENA

AURREKARIAK

1. Lan eta Justiziako sailburuak 2018ko urriaren 10ean emandako Aginduaren bidez, batzorde honi izenburuan adierazi lege-aurreproiektuaren kontsulta egin zitzaion egun horretan bertan.
2. Bidalitako espedientean, Legearen aurreproiektuaren testuaz eta aipatutako eskaera-aginduez gain, honako agiri hauek daude:
 - a) Agindua, 2017ko uztailaren 21ekoa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskadiko kooperatibei buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedura abiarazten duena.
 - b) Araua egin baino lehenagoko jendaurreko informazioaren izapidea, 2018ko urriaren 9koa, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak egina.



- c) Generoaren araberako eragin-txostena, 2018ko urtarrilaren 31koa.
- d) Aurreproiektuari buruzko memoria ekonomikoa, 2018ko urtarrilaren 31koa.
- e) Aurreproiektua justifikatzen duen memoria teknikoa, 2018ko urtarrilaren 31koa, ekimena sustatu duen saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak eginikoa.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Legea (ekainaren 24ko 4/1993 Legea) berritzeko proposamen-dokumentua, hiru euskal unibertsitateek egina.
- g) Alegazio-idazkiak, 2018ko otsailaren 14koak.
- h) Agindua, 2015eko otsailaren 19koa, adierazitako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibei buruzko Legearen aurreproiektua aldez aurretik onartzen duena. Arauaren testuaren lehen bertsioa dakar, testu elebidunean.
- i) Sailaren txosten juridikoa, 2018ko martxoaren 2koa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak eginikoa.
- j) Enpresako eraginari buruzko txostena, 2018ko martxoaren 13koa, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak eginikoa.
- k) Txostena, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarena (aurrerantzean HHABHZ), 2018ko martxoaren 14koa.
- l) Alegazioak, Euskadiko BGAE federazioak eginikoak, 2018ko martxoaren 16koak.
- m) 2/2018 Txostena, Euskadiko Kooperatiben Batzorde Nagusiarena (EKBN), 2018ko martxoaren 23koa.
- n) Alegazioak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eginikoak, 2018ko martxoaren 21ekoak.
- o) Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren oharrak proiektuari, 2018ko martxoaren 26koak.
- p) Txostena, 2018ko apirilaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak igorritakoa.
- q) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren oharrak proiektuari, 2018ko apirilaren 13koak.
- r) 4/2018 Txostena, apirilaren 11koa, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen osoko bilkurakoa.



- s) Txostena, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Herri Administrazioen Hizkuntza Normalkuntzarako Zuzendaritzarena, 2018ko apirilaren 26koa.
- t) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren oharrak, 2018ko maiatzaren 7koak.
- u) Legearen aurreproiektuaren bigarren bertsioa, 2018ko maiatzaren 25koa.
- v) Aurreproiektua izapidetzeko memoria, 2018ko maiatzaren 25koa.
- w) Lehiaren Euskal Agintaritzaren 270/2018 txostena, 2018ko ekainaren 27koa.
- x) 13/18 Irizpena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordearena (EGAB), 2018ko ekainaren 27koa.
- y) BNFIX auditoreen alegazioak, 2018ko uztailaren 17koak.
- z) Legearen aurreproiektuaren hirugarren bertsioa, 2018ko uztailaren 20koa.
- aa) Aurreproiektua izapidetzeko memoria, 2018ko uztailaren 20koa.
- bb) Txostena, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarena, 2018ko urriaren 1ekoa.
- cc) Txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena, 2018ko urriaren 2koa.
- dd) Aurreproiektua izapidetzeko memoria, 2018ko urriaren 10ekoa.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

- 3. Irizpen hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1. a) artikuluekin bat eman da; artikulua horrek Batzordearen kontsultafuntzioaren eremutzat jotzen ditu Legearen aurreproiektuak, edozein dela ere haien arloa eta xedea, betiere ez badaude biltzen dituen salbuespenen barruan sartuta, eta honako hau ez da horietako bat.

LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

- 4. Irizpen-testuak zati hauek jasotzen ditu: xedapenak, 154 artikulua —4 titulutan, 15 kapitulutan eta 18 ataletan banatuta—, 8 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, 1 xedapen indargabetzaile eta 5 azken xedapen.
- 5. Indarrean dagoen testuaren egitura formala mantentzen du, eta zabal azaltzen du eduki materiala.



6. Ildo horretan, nabarmentzekoa da, indarrean dauden artikulua asko bere horretan uzteaz batera, araudiaren testua eguneratu dela. Bertan sartzen dira indarrean egon den bitartean egin zaizkion aldaketak. Era berean, aldaketa nahiz hobekuntza juridiko eta tekniko jakin batzuk egiteko aukera baliatu da, araudiari koherentzia emateko, eta interpretazio eta aplikazio praktikoa izateko.
7. Erreformaren helburuak eta edukiak behar bezala zehaztu dira xedapenetan, xehetasun handiz aztertzen baitira proposatutako aldaketak.
8. Espedientean aipatzen den moduan, helburu orokor gisa, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

Administrazioaren jarduna eguneratzea kooperatibak sustatzeko moduan eta ahaleginean, eta kooperatibek legea betetzearen gaineko kontrolean.

(...) zaharkituta geratutako hainbat alderdi gainditzea, kontuan harturik horien kostua eta aplikatzeko erakusten duten zailtasuna; kooperatiben autonomia indartzea, proiektu kooperatibo bakoitza ondoen dagokion moduan erregulatzeko, betiere errespetatuz sozietate bati kooperatiba-izaera ematen dioten identifikazio-lerroak; kooperatiben funtzionamendu demokratikoa eta parte-hartzailea bermatzea, eta, aldi berean, kudeaketa eta kontrolen eraginkortasuna bermatzea eta publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren indartzea. Funtsean, segurtasun juridikoa eranstea lortu nahi da, barne nahiz bazkide ez diren hirugarrenen harremanetan, hau da, kooperatibei buruz EAEn dagoen legeria tresna egokia izatea kooperatiben barne-harremanak eta kanpoko trafikoa finkatzeko.

9. Helburu horiek xedapenetan jasota daude, eta eduki hauek ditu:
10. I. tituluak, «Kooperatiba-sozietateak», hiru kapitulu daude.
11. I. kapituluak 6 artikulua ditu, arloko xedapen orokorrak jasota: 1. artikuluan, kooperatiba-sozietatearen kontzeptua eta printzipioak; 2. artikuluan, horien izenari buruzko zenbait alderdi; 3. artikuluan, egoitza soziala; eta, 4. artikuluan, sozietateak eratzeko behar den gutxienezko kapital soziala. Gainera, 5. artikuluan hirugarrenekin egin beharreko eragiketarako arautzen ditu, eta 6. artikuluan, berriz, estatutuetan definitu beharreko kooperatiba-ataleko buruzko edukiak.
12. II. kapituluak, «Kooperatiba eratzea», kooperatibak eratzeko batzarrei buruzko zenbait alderdi xedatzen dira 7. artikuluan; 8. artikuluan, eratzeko ari diren kooperatiben berezitasunak; eta, 9. artikuluan, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak estatutuen




- proiektuari aldez aurretik emandako kalifikazioa. Era berean, 10. artikulua kooperatiba irregularra arautzen du; 11. artikulua, kooperatiba eratzeko modua; 12. artikulua, kooperatiba eratzeko eskrituraren edukiak eta ezaugarriak; 13. artikulua, estatutuen gutxienezko edukia; eta, azkenik, 14. artikulua, kooperatibaren deuseztasuna.
13. III. kapituluaren, «Euskadiko Kooperatiben Erregistroa» arautzeko artikulua sartzen dira. 15. artikulua kooperatiben antolamendua jasotzen du; 16. artikulua, erregistroaren eraginkortasuna; 17. artikulua, eginkizunak; eta 18. artikulua, aplikatzekoak diren arau osagarriak.
 14. IV. kapituluaren barruan, «Pertsona bazkideak», 19. artikulua ezartzen du nor izan daitekeen bazkide; 20. artikulua, nor onartzen den kooperatiban; eta 21. artikulua, nor diren lan-bazkide. Bestalde, 22. eta 23. artikuluek, hurrenez hurren, bazkideen betebeharrak eta eskubideak ezartzen dituzte. 24. artikulua bazkideen informaziorako eskubidea jasotzen du, eta 25. artikulua, berriz, eskubide horren mugak eta bermeak. 26. artikulua, gainera, kooperatiban borondatez baja ematea jasotzen du; 27. artikulua, nahitaezko baja; 28. artikulua, bazkideen kanporatzea; 29. artikulua, gizarte-diziplinako araei buruzko aspektuak; 30. artikulua, bazkide langilearen edo lan-bazkidearen galarazpenari edo nahitaezko bajari dagozkion aspektuak arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduko, produkzioko edo ezinbestekoak direla-eta; eta, 31. artikulua, bazkide ez aktibo edo ez erabiltzaileen eta eszedentzian dauden bazkideen erregimena.
 15. V. kapituluaren hasieran, «Kooperatibako organoak» izenekoan, 32. artikulua dago. Artikulu berri horrek organoen zerrenda ematen du, eta bi motatakoak bereizten ditu. Alde batetik, ezinbestekoak direnak: batzar nagusia eta administrazio-organoa. Bestetik, kooperatibaren estatutuetan hautaz kontuan har daitezkeenak: zaintza-batzordea, gizarte-kontseilua eta errekurtsio-batzordea; nolahi ere, beste organo batzuk ezar daitezke estatutuetan, baina ezingo dituzte inolaz ere beren gain hartu aurrekoei esleitutako eskumenak.
 16. Kapitulu horretako lehenengo atalak batzar nagusia arautzen du; 33. artikulua bere kontzeptua eta eskuduntzak zehazten ditu; 34. artikulua zein batzar nagusi mota dagoen; 35. artikulua haren deialdia; eta, 36. artikulua, funtzionamendua. Bestalde, 37. artikulua boto-eskubidearekin loturiko alderdiak aurreikusten ditu; 38. artikulua, akordioak hartzeko gehiengoaren erregimena; 39. artikulua, batzar orokorraren aktaren alderdiak; 40. artikulua, ordezkarien batzarra; eta 41. artikulua, batzar orokorraren akordioak aurkatzeko erregimena.
 17. Bigarren atalaren izenburua hau da: «Kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza». Atal horren barruan, 42. artikuluan, administratzaileen izaera eta eskumenak jasotzen dira;



43. artikuluan, administratzaileak aukeratzeko modua; 44. artikuluan, administratzaile izateko ezintasun eta debekuen arrazoiak; 45. artikuluan, ordainsariak; eta 46. artikuluan, agintaldiaren iraupena eta kargutik kentzeko modua. Zuzendaritza-kontseilua eratzea eta eguneratzea ere arautzen da 47. artikuluan; 48. artikuluan, berriz, kontseiluaren funtzionamendua. Halaber, 49. artikuluan administratzaileek bete beharreko eskakizunak ezartzen dira; 50. artikuluan, erantzukizuna; 51. artikuluan, eskakizun horien aurkako erantzukizun-ekintzak, eta 52. artikuluan, erabakiak aurkaratzea.
18. Hirugarren atalean, zaintza-batzordeari buruzkoan, 53. artikuluan batzordearen osaera, agintaldia eta izendapena arautzen da; 54. artikuluan, informazioa emateko eskumenak; 55. artikuluan, aplikazio-esparrua, eta 56. artikuluan, eskumenak eta funtzionamendua.
19. Laugarren atalean, «Beste organo batzuk» aztertzen dira; 57. artikuluan, gizarte-kontseiluaren figura jasotzen da, baita figura horren izaera eta eginkizunak ere; eta, 58. artikuluan, baliabide-batzordearen osaera eta eginkizunak.
20. Erregimen ekonomikoari buruzko VI. kapitulua 59. artikuluekin hasten da, kooperatibek gizarte-zorretan duten erantzukizuna zehazten duena; 60. artikulua kapital sozialaren osaketari buruzkoa da; 61. artikulua, kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzkoa; 62. artikulua, borondatezko ekarpenei buruzkoa; 63. artikulua, ekarpenek sor ditzaketen interesena; 64. artikulua, ekarpenen eguneratzeari buruzkoa; 65. artikulua, ekarpenen transmisioari buruzkoa; eta, 66. artikulua, azkenik, ekarpenen errenboltsoari buruzkoa. 67. artikulua partaidetza bereziak arautzen ditu, eta 68. artikulua, beste finantzaketa mota batzuk. Soberakin garbieraren zehaztapena 69. artikuluan jasotzen da; 70. artikuluan, soberakin horien banaketa; 71. artikuluan, nahitaezko erreserbaren funtsa; 72. artikuluan, korporazioko hezkuntzarako eta sustapenerako laguntza eta interes publikoko beste helburu batzuk; eta 73. artikuluan, galerak egozteak.
21. VII. kapituluan, agiri sozialei eta kontabilitateari buruzkoan, 74. artikulua agiri sozialak zehazten dira; 75. artikulua, kooperatiben kontabilitatea; 76. artikulua, kontuen ikuskaritza; eta, 77. artikulua, abokatu aholkatuaren figura.
22. VIII. kapituluan, estatutuak aldatzeari buruzkoan, 78. eta 79. artikuluetan, hurrenez hurren, estatutuak aldatzea eta egoitza soziala aldatzea aztertzen da.
23. IX. kapituluan, «Kooperatibaren bat-egitea eta zatitzea» izenekoan, 80. artikuluan, bat-egitearen modalitateak eta ondorioak arautzen dira; 81. artikuluan, bat egiteko proiektua; 82. artikuluan, bat egite horri buruzko informazioa; 83. artikuluan, bat-egite akordioa; 84. artikuluan, bazkideak eskubiderik gabe uztea; eta 85. artikuluan,



- hartzekodunei aurka egiteko eskubidea. 86. artikuluan, bat-egitearen idazketa eta inskripzioari buruzko alderdiak zehazten dira; 87. artikuluan, bat-egite bereziak; eta 88. artikuluan, kooperatiba zatitzea.
24. X. kapituluak, eraldatzeari buruzkoak, bi artikulua jasotzen ditu: 89. artikulua, kooperatibak sozietate zibil edo merkataritza-sozietate bilakatzeari buruzkoa, eta 90. artikulua, sozietate zibilak edo merkataritza-sozietateak elkarre, talde edo izaera kooperatibokoa ez den beste edonolako erakunde mota bilakatzeari buruzkoa.
25. XI. kapituluan, kooperatibak desegin eta likidatzeari buruzkoan, 91. artikulua desegiteko arrazoiak arautzen ditu; 92. artikulua, desegiteko arrazoen eraginkortasuna; 93. artikulua, likidatze-prozesua; 94. artikulua, likidatzaileen izendapena; 95. artikulua, funtzioen eskualdatzea; 96. artikulua, likidatzaileen eginkizunak; 97. artikulua, likidazioaren esku-hartzea; 98. artikulua, sozietatearen ondasunak esleitzea; 99. artikulua, azken balantzea; 100. artikulua, erregistroa baliogabetzea; eta 101. artikulua, kooperatibaren lehiaketa.
26. II. tituluak, «Xedapen bereziak» izenekoak, kooperatiba mota desberdinen arauketa jasotzen du.
27. I. kapituluak kooperatiba mota guztiak arautzen ditu hainbat atalen bidez.
28. 1. atalean, kooperatiba guztiei dagozkien arauak jorratzen dira. Artikulu bakarra jasotzen du, 102. artikulua, oro har aplikatu beharreko kalifikazioari eta arauketari buruzkoa.
29. 2. atalean, lan elkartuko kooperatibei buruzkoan, 103. artikulua kooperatiba mota horien xedea eta arau orokorrak jasotzen ditu; 104. artikulua, bazkide gisa onartzeko aurretiazko proba aldiari buruzkoa da; 105. artikulua, bazkideen lan-araubideari buruzkoa; 106. artikulua, diziplina-araubideari buruzkoa; eta, 107. artikulua, laneko eta gizarteko loturari erreferentzia egiten dioten auzizko kontuei buruzkoa, gizarte alorreko jurisdikzio-organoei igortzen zaizkienak, edo, gainerako kasuetan, merkataritzako epaitegi eta auzitegi-tara igortzen direnak.
30. 3. atalaren 108. artikuluan, kontsumo-kooperatibak jasotzen ditu, xede eta eginkizun sozialari dagokienez.
31. Irakaskuntza-kooperatibak arautzen dituen 4. ataleko 109. artikulua, kooperatiba horien helburuak eta modalitateak jasotzen ditu; 110. artikulua, irakaskuntza-kooperatiba integralen espezialitateak; eta 111. artikulua, izaera edo erabilgarritasun publikoko bazkideak.



32. 5. atalean, «Nekazaritzako eta elikagaigintzako kooperatibak» izenekoan, 112. artikulua kooperatiba horien xedea eta jarduerak ezartzen ditu; eta 113. artikulua, bazkide ez diren hirugarrenekin egin beharreko eragiketen araubidea.
33. 6. atalean, «Erkidegoan ustiatzeko kooperatibak» izenekoan, 114. artikulua mota horietako konpainien xedea eta esparrua definitzen du; 115. artikulua, bazkideen araubidea; eta 116. artikulua, kooperatiba horien egitura ekonomikoa.
34. 7. atalean, «Etxebizitza-kooperatibak» izenekoan, kooperatiba horien araubidea jorratzen da. 117. artikulua kooperatiba horiei dagokien xedea, eragiketak eta esparrua ezartzen ditu; 118. artikulua, jabetza esleitzeko edo lagatzeko araubidea; 119. artikulua, bazkideen araubidea; 120. artikulua, zuzendaritza kontseilua; 121. artikulua, kontuak ikuskatzeko eta abokatu aholkularia izateko betebeharra; eta 122. artikulua, etxebizitza babestuen sustatzea eta eskubideak besterentzea.
35. 8. atalean, «Finantza-kooperatibak», izenekoan, kreditu- eta aseguru-kooperatiben ezaugarriak jasotzen dira 123. eta 124. artikuluetan, hurrenez hurren.
36. 9. atalean, «Osasun-kooperatibak» izenekoan, 125. artikulua asistentzia sanitarioko kooperatibak definitzen ditu; eta 126. artikulua, berriz, osasun-instalazioen kooperatibak.
37. 10. atalean, «Zerbitzu-kooperatibak» izenekoan, kooperatiba horien modalitate ezberdinak ezartzen dira. Hala, 127. artikulua zerbitzu profesionalen kooperatibak arautzen ditu; 128. artikulua, enpresa-zerbitzuen kooperatibak; 129. artikulua, garraio-kooperatibak; eta 130. artikulua, erakundeetako zerbitzu-kooperatibak. Gainera, 131. artikulua kooperatiba horien guztien arau osagarriak jasotzen ditu.
38. 11. ataleko 132. artikulua kooperatiba txikiak arautzen ditu.
39. 12. atalak, gizarteratze-kooperatibak arautzen dituenak, 133. artikuluan horien definizioa eta ezaugarriak lantzen ditu, eta, 134. artikuluan, bazkideen erregimena.
40. II. kapituluan, «Kooperatiban sartzea eta sailkatzea» arautzen da hainbat ataletan.
41. 1. Atalean, «Bigarren mailako kooperatibak eta ondorengoak» arautzen dira. 135. artikulua kooperatiben xedea eta ezaugarriak definitzen ditu; 136. artikulua, kooperatiba horien ahalmena, eta bazkideei alta eta baja emateko modua; 137. artikulua, araubide ekonomikoa; 138. artikulua, egitura organikoa eta boto-eskubidea; 139. artikulua, kooperatiben likidazioa; eta 140. artikulua, aplikatu beharreko araudi osagarria.
42. 2. atalak, «Lankidetzako ekonomikoko beste modalitate batzuk », enpresa-elkarteak arautzen ditu 141. artikuluan; 142. artikuluan, gizarte-helburuak lortzeko kooperatibarteko



- akordioak; 143. artikuluan, talde kooperatiboak; eta, 144. artikuluan, kooperatiba mistoak, zeinetan bazkide minoritarioak existitzen diren.
43. III. tituluak, «Kooperatibak eta administrazioa», 145. artikuluan aitortzen du Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, gizarte eragile den aldetik, baita gizarte-ekimenekotzat hartzen diren kooperatibak, gizarte-interesa eta onura publikoaren aitortza; 146. artikuluan, bestetik, kooperatibismoa sustatu eta hedatzeko neurriak jasotzen ditu. 147. artikulua Eusko Jaurlaritzari dagokion kooperatibetako ikuskaritza arautzen du; 148. artikulua, arau-hauste kooperatiboak; 149. artikulua, zehapen kooperatiboak; 150. artikulua, kooperatiba bati aipua kentzeko arrazoiak eta prozedura; eta, 151. artikulua, kooperatiben aldi baterako kontu-hartzailera, funtzionamenduan irregulartasunak izatearen ondorioz.
 44. Azkenik, IV. tituluak, kooperatiben asoziazionismoari buruzko bi kapitulu jasotzen dira.
 45. I. kapituluak, «Kooperatiba-elkartek» izenekoan, 152. artikulua esparru horretako printzipio orokorrak jaso ondoren, 153. artikulua kooperatiben hainbat elkarte, federazio eta konfederazio izateko aukera sartzen du.
 46. Azkenik, II. kapituluko 154. artikulua (artikulu bakarrak) Kooperatiben Goren Kontseilua arautzen du. Erakunde publikoa da, baita EAEko administrazio publikoetako erakunde aholku-emailea ere kooperatibismoari eragiten dioten gai guztietan, bere funtzioak zehaztuz.
 47. Testuan zortzi xedapen gehigarri daude: lehenengoa, epeak kontatzeari buruzkoa; bigarrena, lan elkartuko garraio-kooperatibena; hirugarrena, kooperatibismoa bultzatu eta sustatzeari buruzkoa; laugarrena, enplegua sustatu eta kontsolidatzearen arloko jokabide-berdintasunari buruzkoa; bosgarrena, kooperatibetako genero-berdintasuneko neurriari buruzkoa, kooperatiben obligazioa ezartzen duena bere organoetan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan dadin; seigarrena, hizkuntza ofizialen erabilerari buruzkoa; zazpigarrena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ondarearen Legearen testu bateginekoko 102. artikuluko a) letra aldatzeari buruzkoa, zeina azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartu zen; eta, zortzigarrena, kooperatibetako bazkideen gizarte-aurreikuspenari buruzko erabakiak hartzea sustatzeari buruzkoa.
 48. Era berean, bi xedapen iragankor aurreikusten dira: lehenengoa eginbidean dauden espedienteei buruzkoa da; eta bigarrena, egungo estatutuak aplikatzeari buruzkoa.
 49. Xedapen indargabetzaile bakarrak egungo Kooperatiben Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiba-sozietate txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legeko 5.3 artikulua indargabetzen ditu.



50. Bukatzeko, bost azken xedapen sartzen dira; lehenengoa, indarrean sartzeari buruzkoa da (EHAAn argitaratu eta hogeita hamar eguneko epean jarriko da indarrean); bigarrena, arauaren aplikazio-eremuari buruzkoa; hirugarrena, Eusko Jurlaritzako sail eskudunak kooperatiba mota berriak arautzeko aukera ematen duena; laugarrena, arauan ezarritako zenbateko kuantitatiboak eguneratzea ahalbidetzen duena; eta bosgarrena, legea aplikatzeari eta garatzeari buruzkoa. Azken horretan, gobernuak ikuskatzeko eginkizuna eta zehapen kooperatiboko prozedura gauzatzeko erregelamenduak onartzeko betebeharra zehazten da.

PRESTATZEKO PROZEDURA

51. Batzordeak adierazi izan duenez, Legearen aurreproiektuak Eusko Jurlaritzaren barruan egiteko prozeduraren azterketari ekinez gero, hau hartu behar da kontuan: «Legegileak ez du Konstituzioa betearazten, Konstituzioak berak eskaintzen duen esparruan zuzenbidea askatasunez sortu baizik, erregelamenduak egiteko ahala Konstituzioarekin eta legeekin bat etorrita gauzatzen baita (EKren 97. artikulua) (besteak beste, 209/1987 KAEa, abenduaren 22koa)»; beraz, Espainiako Konstituzioak (EK), Autonomia Estatutuak (EAEAE) edo, batzuetan, lege organikoek berariazko izapideak aurreikusten dituztenean salbu —eta benetako salbuespenak dira horiek gure ordenamenduan—, analisi hori, funtsean, tresna bat da, proiektatutako erregulazioaren arrazoizkotasuna aztertzeko, hau da, edukia zenbateraino den baliagarria helburuak erdiesteko.
52. Legearen proiektuak egin eta onartzeko prozedura da gobernu autonomikoari funtzio legegilean parte hartzeko bidea ematen diona, eta, hortaz, bere politika publikoak artikulatzeko, lege-lerruna duten arauen bitartez. Ondorioz, «autonomia-erkidegoen legegintza-ekimenen jarduna, orokorrean, eta legeen aurreproiektuen elaborazioa, bereziki, KEn 149.1.18 artikuluan ezarritakotik kanpo gelditzen da zeharo, bai “administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriei” dagokienez, bai “administrazio-prozedura bateratuari” dagokionez» (55/2018 KAE, 2018ko maiatzaren 24koa).
53. Ondorio horietarako, beraz, badugu erreferentzia-tresna garrantzizko bat, hots, abenduaren 22ko 8/2003 Legea, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzkoa (aurrerantzean, XOEPL), zeinak, inguruabar horiek ahaztu gabe, Jurlaritzaren jardura bideratu nahi izan baitu, Jurlaritza, lege-proiektuak idazterakoan, xedapen orokorrak egiteko metodologia berbera erabiltzen saia dadin. Hala, zioen azalpenean esaten duenez, oso ekarpen ona egiten da legegintza-ahalmena duenaren lana errazteko, proiektu hobeto oinarrituak eta antolatutak, teknika juridiko txukunago eta xede dituen helburuak lortzeko egokiagoa dutenak aurkezten zaizkiolako, eztabaidatu eta erabaki dezan.
54. Legearen proiektuak egiteko prozedurari buruzko azterketa egiteko, batzordeak XOEPLren jarraibideak sistematizatu eta honako hauek bereizi ditu: (i) hasierako fasea,



ekimena proposatu duen organoaren barrukoa, helburu nagusitzat duena hasierako testua eta horri eusten dioten arrazoiak finkatzea eta kasu bakoitzean dagozkion izapideak egiteko beharrezko dokumentazioa prestatzea; (ii) prozedura irekitzeko fasea, arauak eragin diezaiekeen sektore eta administrazioak aintzat hartuta; (iii) txostenak —nahitaezkoak eta aukerakoak— egiteko fasea; eta (iv) amaierako fasea: ekimena bultzatu duen organoak, prozedura-iter guztia ebaluatuta, behin betiko testua finkatu, eta azken dokumentuak prestatuko ditu —justifikazio-memoria eta memoria ekonomikoa—.

55. Irizpide horiek kontuan hartuta, adierazi behar da legea prestatzeko prozesuari hasiera ematen dion 2017ko uztailaren 2ko Aginduak jakitera ematen duela zein diren erregulazioaren xedea eta helburua, haren bideragarritasun juridikoa eta materiala eta antolamendu juridikoari eragindakoak. Izango duen eragin ekonomikoa aztertzea zaila dela zehazten du, eta aurrekontu-eremuan ez dela ageri. Gainera, araua onartzeko behar diren txostenak eta izapideak xedatzen ditu, baita testu arauemailea elebitan idazteko metodoa ere, itzulpena, alegia.
56. Aurreproiektua aurretiaz kontsultatu zen araua idatzi baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren webgunean (*Irekia*) argitara eman zen memoria argitzailearen bitartez.
57. Ekimena sustatu duen organoak generoaren arabera eraginaren alde aurretiko ebaluazioa egin du, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko (aurrerantzean, GEBL) 19. artikulua eskatzen duenari jarraikiz. Gobernu Kontseiluak onartu ditu, 2012ko abuztuaren 21eko saioan, generoaren arabera eraginaren alde aurreko ebaluazioa egiteko, eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko nahiz horien artean berdintasuna sustatzeko neurriak sartzeko ildoak. Ekimenean, generoaren arabera eraginaren aurretiko ebaluazioa jasotzen da, baita ezberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko proposatzen dituen arauak ere. Testuaren barruan, nabarmentzekoak dira bazkide gisa onartzean diskriminazioa debekatzeari buruzko arauak eta kooperatiba-organoetan presentzia orekatua izatea bermatzen duten arauak.
58. Era berean, memoria ekonomikoa idatzi da. Horren arabera, aplikatzekoa den araudiarekin bat etorriz, eragin hauek zehazten dira: ekonomian eta aurrekontuan duen eragina; ekonomian eta antolamenduan duena, eta proiektuak baliabide publikoetan, partikularretan eta, oro har, ekonomian duen eragina. Alderdi guztietan nabarmentzen da araudi berriak eraginen bat sortzen badu, eragin hori minimoa izango dela egungoarekin alderatuta.



59. Espedientean, justifikazio-memoria dago. Bertan aztertzen da arauaren egokitasuna, eta memoria eragin duten arrazoiak, lortu nahi diren helburuak eta alternatiba juridiko posibleak zehazten dira. Edukiaren eta egituraren azalpen zehatz bat ere egiten da bertan, non arauak proiektatutako nobedadeak azpimarratzen diren. Memorian, era berean, aztertu egiten da araudiak ez duela eraginik egungo administrazioak ordaindu beharreko kargetan. Horrez gain, genero-berdintasuna bultzatzeko proposatzen diren neurriak azaltzen dira; izan ere, organo bazkideak ahaleginduko dira bazkideen presentzia orekatua bermatzen.
60. «Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legea aldatzeko proposamena» izeneko dokumentu bat dago espedientean, hiru euskal unibertsitateek ikerketa-proiektu bezala gauzaturik, non, behar diren aldaketan analisi orokor bat egin ondoren, horiei buruzko artikulua proposatzen diren, justifikazio egokiek.
61. Artikuluei egindako ohar eta proposamen batzuk jasotzen dira, zeinak, jendaurreko informazioaren izapidetik jaso ondoren, ekonomialari batek eta kontu-ikuskari batek landu dituen.
62. XOEPLren 7. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrita aurreko izapideak egin ondoren eta aurreko kontsiderazioak aintzat hartu ondoren, kontseilariak Legearen aurreproiektuaren hasierako testu elebiduna aurretiazko izaeraz onartzea erabaki zuen, eta, ondorioz, Legea onartzeko behar ziren izapideekin aurrera jarraitzea.
63. Txosten juridikoak XOEPLren 7.3. artikuluko eskakizunak betetzen ditu, eta ondoko ondoko hainbat epigrafetan aurreproiektuaren aurrekariak, eskumenak eta edukiaren inguruko azterketa egiten da, eta horri buruzko zenbait ohar egiten, testua hobetu eta egokitze aldera. Azkenik, aurreproiektua izapidetzeko beharrezkoak diren izapideen inguruko azterketa bat egiten da.
64. Enpresetan duen eraginari buruzko txostena egin da, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko 2012ko ekainaren 28ko 16/2012 Legeko 6. artikuluan ezartzen den moduan. Bertan zehazten dira kooperatiba-sozietatearen funtzionamendua ahalbidetu eta errazten duten neurriak; lehiakorrago egiten dute kooperatiba. Neurri horiek kooperatiben enpresa-jarduera eta garapena ahalbidetzen duten neurriak direla adierazten da; korporazio izaerari uko egin gabe, bestalde.
65. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren antolaketa-txostenak, bere aldetik, aurreproiektuaren prozedura-aspektuei buruzko azterketa egiten du, eta balorazio positiboa ematen die kooperatibaren organoen funtzioen antolaketa-aspektuei eta kooperatibaren funtzionamenduari, baita informazioaren gizarteko teknologien erabilerrari ere. Gainera, kooperatibetako



gizarte-dokumentazioa eta kooperatiben erregistroari lotutako izapideak elektronikoki bakarrik izatea proposatzen du.

66. Euskadiko BGAE Federazioaren idazkian ageri da, non bazkideentzako gizarte-aurreikuspenari buruzko akordioak etorkizuneko legean sartzeko eskaera egiten den.
67. Indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatibei buruzko Legearen 145.2.b) artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik (ekainaren 24ko 4/1993 Legea), Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenak aurreproiektuari buruzko txostena eman du. Txostenak, aldeko izaera duenak, ohar espezifiko batzuk egiten ditu; horietan, legean euskal kooperatiben ordezkartza aitortzeko beharra azpimarratzen da, enpleguari lotutako gaietan eta organismoetan. Ez dator bat etxebizitza-kooperatiben aldetik hirugarrenen operazioak %40a handiagotzearekin. Gainera, zenbait ohar ere egiten ditu erakunde publikoekin edo administrazioekin operazioak gauzatzen dituzten etxebizitza-kooperatibetako bazkideen portzentajeak salbuesteko, baita irakaskuntza-kooperatibei eta hezkuntzako itunei buruz ere.
68. Konfekoopkek alegazioak igorri ditu euskal kooperatiben mugimenduaren ordezkagarritasun instituzionala bermatzeko, enpleguari lotutako ordezkartza instituzionaleko organismoetan. Era berean, haien iritzian, legean jasota egon behar luke hezkuntza-zentro kooperatiboak lehentasunez hezkuntzako itunen erregimenari lotzea.
69. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak nekazaritzako elikagaien kooperatibei buruzko zenbait ekarpen egin dizkio testuari. Sailaren iritzian, egoki da kooperatiba horiek nekazaritza- eta elikagaigintza-kooperatiba izena hartzea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren Legea onartu ondoren (abenduaren 23ko 17/2008 Legea). Horien erregimena Emakume Nekazarien Estatutuaren Legeak (urriaren 15eko 8/2005 Legea) aurreikusitakora moldatzeko beharra ere adierazten du, titulartasun partekatuen erregimenari dagokionez.
70. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak GEBlren 21. artikuluan jasotzen den txostena idatzi du, non kooperatiben eremuko generoaren eragina zuzen aztertu ahal izateko analisis sakontzeko beharra nabarmentzen den. Bestalde, beste zenbait kontsiderazio ere egiten ditu, aurreproiektuaren edukien artean berdintasun-planak egin eta aplikatzeko beharri buruz, sexu-jazarpenera eta sexuarengatiko jazarpenera prebenitzeko berariazko neurriak hartzei buruz eta bazkideen prestakuntza eta hezkuntza sustatzeari buruz, baita gomendio batzuk ere, beren jarduna emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioekin bat etorritik gauzatzen duten kooperatiba-sozietateen begiramen bereziari dagozkionak.



71. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak zenbait kontsiderazio egin dizkio aurreproiektuari. Aurreproiektuak bizitegi-erabilerako eraikin formula berriei lekua egiteko beharra nabarmentzen du Sailak, esaterako, *co-housingari* edo erabilera-lagapeneko kooperatiba-erregimeneko etxebizitzetzi; eta, horri dagokionez, kontsiderazioak egiten ditu horiek desegiteko baldintzen modulazioari eta eratzeko gutxieneko portzentajeari buruz. Bestalde, beste zenbait gogoeta ere egiten ditu, horien artean: hirugarrenei etxebizitza besterentzeari buruzkoa, administrazio publikoren batek parte hartzen duen promozio guztietara hedatzea bazkideen gutxieneko portzentajearen betebeharrari buruzkoa, kooperatibek kudeaketa publikoko lursailak eskuratzeari buruzkoa, eta, azkenik, egungo babes ofizialeko etxebizitzaren terminoa berrikusteari buruzkoa.
72. Kontratazio Publikoko Batzorde Aholkulariak bere txostena igorri du, non, aurreproiektuak kontratazio publikoan duen eragina aztertu ondoren, zenbait ohar egiten dizkion artikuluei, aurreproiektuaren aldeko iritzia agertuz.
73. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak bi ikuspuntutatik eman du irizpena: hizkuntza-araudia betetzearen ikuspuntutik eta euskararen erabileraren normalizazioan daukan eraginaren ikuspuntutik.
74. Hezkuntza Sailak ez du beharrezkotzat jo legearen testuan irakaskuntza-kooperatibetako hezkuntzako itunen lehentasunari dagozkion aurreikuspenak sartzea, adierazi baitu lehentasun hori jada jasotzen dela Hezkuntzaren Lege Organikoan (maiatzaren 3ko 2/006 Legea), abenduaren 18ko 2377/1985 Errege Dekretuan, Hezkuntzako itunei buruzko oinarritzko arauen erregelamenduan eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzako itunen erregelamenduan (irailaren 8ko 293/1987 Dekretua).
75. Ekimena sustatu duen sailak memoria bat egin du, non erantzun arrazoitua ematen dien ordura arte egindako alegazio eta iradokizun guztiei, horietako parte handi bat onartuz. Gainera, Emakunderen eskakizunari ere erantzuna ematen dio, kooperatiben osatzeari buruzko datuen analisisan genero-ikuskera sakonduta.
76. Lehiaren Euskal Agintaritzak txostena egin du, artikuluetan kooperatibak Lehia Defendatzeko Legeari (15/2007 Legea, uztailaren 3koa) lotzen zaizkiola adieraztea komeni dela nabarmenduz.
77. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena ere badu, martxoaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluari jarraikiz emandakoa. EGAB ez da ados agertu Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa gizarte eragiletzat hartzearekin, izan ere uste du «ez dela egokia gaizki-ulertuak sor ditzakeen termino bat erabiltzea, hizkuntza arruntean kooperatiba-konfederazio batena ez den izaerako beste erakunde batzuk gogora dakartzalako (sindikatuak eta patronalak)». EGABek, manuaren helburu bakarra



konfederazioaren aitortza dela ulertuta, beste idazkera bat proposatzen du, eta «agente solaskidea» hitza proposatzen du. Gainera, ez du uste zuzena denik hari ematea ordezkagarritasun-izaera zuzenean, uste baitu unean-unean baldintzak betetzen dituen konfederazioari erreferentzia egin beharko liokeela. Gainera, zenbait zehaztapen eta ohar egiten dira artikuluetan jasotako alderdi batzuk hobetzeko edo mugatzeko. Azkenik, onura publikoko eta gizarte-ekimeneko kooperatibak artikuluetan sartzea komeni dela ematen du aditzera.

78. EGABen irizpenean, Konfekoopereko ordezkariak eginiko boto partikular bat ageri da. Ez datoz bat kooperatiben mugimenduko eragiletzat jotzea eta hortik eratorritako proposamenak sustatzeko neurriak; izan ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du ez dutela lan-esparrura mugatu behar, haien interesak tartean dauden esparru guztietan aintzat hartu behar direlakoan.
79. Azken txostenen ondoren, izapiderako memoria zabal bat egin zen, non erantzun puntual eta arrazoitua eman zitzaizen planteatutako gaiei.
80. Orain arteko izapideen emaitza da Legearen aurreproiektuaren 2. bertsioa.
81. Ondare Zerbitzuak aurreproiektuari buruz egindako txostenak hizpide nagusi du onura publikoko kooperatibek titulartasun publikokoak diren lursailak eskuratzea, haien sozietate-helburuak betetzeko. Horretarako, beharrezkotzat jotzen du horri aipamen egitea, eskuratzea egin daitekeela zehazteko, beti ere dagokion araudi publikoan hala jasota badago. Euskadiko Ondarearen Legearen testu bateginaren aldaketa korrelatiboak ere aipatzen dira txosten horretan; horrek aukera ematen du kooperatiba mota horien alde ondasunak doan erabiltzeko, interes publikoko edo gizarte-intereseko helburuetarako. Ildo horretan, beharrezko jotzen du zehaztea lursailen helmuga bazkideentzako etxebizitzak eraikitzea izango dela.
82. Era berean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena ere ageri da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25.etik 27.era bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik. Txostenak nabarmentzen duenez, testuak ez du aurrekontu-eragin zuzen eta berehalakorik Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan, eta kooperatibismoaren arloko sustapen-jardunari buruzko informazio gehiago jaso nahi luke. Kooperatiba txikien eta hezkuntzako itunen inguruko zehaztapen gehiago sartzea gomendatzen du. Prozesu korporatibo desberdinetan bitarteko elektronikoak erabiltzeagatik aurreikusitako kostuari buruzko aurreikuspen edo zenbatespen baten gabezia aipatzen da. Azkenik, zailtasuna nabarmendu bada ere, aipatzekoa da proiektuak izan dezakeen eragin ekonomikoaren inguruan baloraziorik egin ez izana, bai partikularren kasuan, bai ekonomian, oro har.



83. Amaitzeko, izapide-memoria bat egin da, EKLren kontsiderazioei erantzuna eman diena. Horri buruz, aipatu behar da formalki ez dela prozedura osoaren memoria laburrik landu, XOEPLeren 10.2 artikulua eskatzen duen bezala. Memoria horrek aurreproiektua dokumentu bakar batean izapidetzea erraztuko luke. Kontrara, helburu horretarako, memoria partzialetara jo beharko da, zeinek funtzio hori behar bezala betetzen duten, nahiz eta espedientearen analisia zaildu. Hori dela eta, tramitatzailak bere solaskideei eskain diezazkieken erantzunez harago, egokiagoa zatekeen, espedientea hobeto ulertu eta erabiltzeko, bilakaeraren memoria labur bat egotea, egindako oharrei buruzko kontsiderazio desberdinak jasoko lituzkeena, baina dokumentu bakar batean jasota izapidetzen ari den testuaren justifikazio eta arrazoi desberdinak.
84. Adierazitakoa gorabehera, kontuan hartu behar dugu XOEPLen aurreikusitako prozedura bete egin dela.

ESKUMEN-TITULUA

85. Batzorde honek izan zuen jada gaiari buruzko iritzia emateko aukera 66/2016 Irizpenaren bitartez, aurreko agintaldian antzeko aurreproiektu baten izapidetu zela eta.
86. Irizpen hartan adierazi genuen aurreikusitako xedapenak Kooperatibei buruzko Legea berriz ere aldatzea dakarrenez —organo aholku-emaile honek 48/1999 eta 6/2005 irizpenak eman ditu aurreko aldaketa batzuen inguruan—, Batzorde honi eskatzen diola, alde batetik, gogoeta handiagoa egiteko Euskal Autonomia Erkidegoari arau ezartzeko ahalmena nahiz arau horretan esandakoari lotzeko gaikuntza ematen dion eskumenari dagokionez.
87. Edonola ere, nabarmendu behar da EAERI esparru horretan esku hartzeko titulua Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.23 artikuluan berariaz aipatzen diren kooperatiben inguruko tituluak ematen diola, merkataritza-arloko legeria orokorrarekin bat etorritik (KEren 149.1.6 artikulua).
88. EAERen eskumen horrek kooperatiben esparruan dituen ondorioak berariaz aztertu zituen Konstituzio Auzitegiak 72/83 Epaian, Kooperatibei buruzko otsailaren 11ko 1/1982 Legearen (egungo EKLren aurreko legearen) konstituzionaltasuna aztertzean.
89. Funtsean, adierazi zen EAERen 10. artikuluan aurreikusitako berariazko eskumen-mailetan, oro har, legegintzako eskumenak eta eskumen exekutiboak jasotzen direla. Horrenbestez, EAEReko 10.23 artikulua EAERI legegintzako eskumena ematen dio kooperatibak arautzeko. Hala, alde batera utziko dira kooperatibak merkataritza-sozietatetzat jo ala ez erabakitzeko dotrinazko jarrerak. Ondorioz, «merkataritza-arloko



legeria orokorrarekin bat etorri» legeria derrigor bete behar dela interpretatu behar da, betiere kooperatibei aplikatzekoa denean; adibidez, kooperatiben legeria orokorrak merkataritza-arloko legegintzari heltzen dionean, edo merkataritzarekin loturiko xedapenak jasotzen direnean (72/83 KAE, 3. OJ).

90. Horrenbestez, EAEk sozietateen ohiko jarduera gauzatzen duten kooperatibak legez arautzeko eskumena du, adierazitako baldintzetan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen barruan, baita harreman juridikoak ezartzen direnean edota lurraldetik kanpo jarduera instrumentalak gauzatzen direnean ere.
91. Gainera, epai horretan adierazi zen EAEk esparru horretan duen eskumena, funtsean, kooperatiben ohiko eginkizunetara mugatuko dela. Kooperatibek haien bazkideen artean dituzten harremanen bidez eratuko dira (*sozietateen barne-harreman* ere esaten zaie, hirugarrenetik harreman juridikoekin kontrastean), eta balio instrumentala dute, beharrezkoak ere izan arren (72/83 KAE, 4. OJ).
92. Araubide juridikoaren iturrien lehentasuna duela gutxi onartu da berriz ere azaroaren 11ko 241/2005 KAEn 4. OJn, berariazko eskumenaren arabera kooperatiben arloan autonomiako xedapenak zuzenean aplikatzen direlako, kooperatiba mota berezi batzuen arabera (kreditu-kooperatibak).
93. Lehentasun horretan, hizpide dugun esparruan hurrenez hurren autonomia-erkidegoei eta estatuari (aipatu 72/83 KAEn agertzean gain, 44/84 eta 165/85 KAEetan ere ageri da) eragiten dieten arloen eskumen-tituluei buruzko dotrina orokorra laburbiltzeaz gain, jakinarazi egiten da —nahiz eta kooperatiba mota jakin batzuen inguruan bakarrik (kreditu-kooperatiben inguruan), KAE hauek, era berean, gogora ekarriz: 134/92 KAE 2. oinarria eta 155/93, 3. oinarria— autonomia-erkidegoek —bide batez, horiek guztiek dagoeneko kooperatiba-arloko maila berbera dute— kooperatiben inguruko xedapenak egokitu beharko dituztela kreditu-antolamenduari buruzko, eta plangintza ekonomikoaren koordinazioari, merkataritza-legeriari eta lan-harremanak nahiz - baldintzak koordinatzeko estatuko arauetara.
94. Era berean, ezin dugu alde batera utzi arlo horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren (EAE) 10.5 artikuluan ezarritako eskumen-titulua arloarekin duen lotura. Horren arabera, berariaz Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da «Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan berezkoa den zuzenbide zibila, foru-zuzenbidea eta zuzenbide berezia mantentzea, aldatzea eta garatzea (idatzizkoa edo ohiturazkoa), eta indarrean egongo den lurralde historikoa zehaztea». Izan ere, lege hau, eta «Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan berezkoa den idatzizko edo ohiturako zuzenbide zibila, foru-zuzenbidea eta zuzenbide berezia» kontzeptu zabalaren barruan jasotako arau sorta zabala, behin baino gehiagotan onartu da jurisprudentzian.



95. Ildo horretan, Auzitegi Nagusiko arlo zibileko lehen salako dotrina ezarrita dagoela zehaztu behar da, esaldi honetan oinarrituta: «Euskal Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben legea ezin da Autonomia Erkidego horri dagokion zuzenbide zibilaren kontzeptutik baztertu» (81/2011 errekurtsua, 2011ko maiatzaren 10ekoa, Auzitegi Nagusiko arlo zibileko lehen salakoa; 939/2010 errekurtsua, 2011ko martxoaren 1ekoa, Auzitegi Nagusiko arlo zibileko lehen salakoa), eta EAEren 14. artikuluan oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoko auzitegi nagusiko arlo zibileko eta zigor-arloko salaren eskumena ebazteko, hain zuzen, aginduak hausteagatik zer kasazio-errekurtsu jarri behar den jakiteko. Bestalde, gogoeta hori funtsezkoa da eta aurreproiektuaren hainbat aginduren bidea irekitzen du; izan ere, gai honetara itzultzean aurrerago ikusiko dugun bezala, orain ordeztu den legerian jasotako beste batzuetan oinarrituta, ordena zibileko jurisdikzio-ordenek eskumena dutela baieztatzen da.
96. Dotrina horrek, bestalde, Galiziako kooperatibei buruzko abenduaren 18ko 5/1998 Legearen inguruan ezarritakoa berresten du; izan ere, oinarri gisa hartzen du agindu horien arau-hausteen errekurtsuaren funtsa «berariaz (edo beste arrazoi batzuekin batera) Erkidegoko Zuzenbide zibilari, foru zuzenbideari edo zuzenbide bereziari» dagozkiola (1401/2005 errekurtsua, 2006ko ekainaren 13koa, Auzitegi Nagusiko arlo zibileko lehen salarena; 2094/2006 errekurtsua, 2007ko uztailearen 31koa, Auzitegi Nagusiko arlo zibileko lehen salarena).
97. Ondorioz, hizpide dugun irizpenean, EAEk, eskumenen ikuspuntutik, ekimena agintzeko gaikuntza-eskumena du.

AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

I GOGOETA OROKORRAK

A) Erabilitako araudi-teknikari dagokionez

98. EKL 1993ko ekainean argitaratu zenez geroztik, hainbat aldaketa izan ditu Euskadiko kooperatibei buruzko legea aldatzen duen ekainaren 29ko 1/2000 legearen eta Euskadiko kooperatiben legea bigarren aldiz aldatzen duen abenduaren 1eko 8/2006 legearen bidez. Gainera, garai horretan Euskadiko kooperatiba-sozietate txikien ekainaren 25eko 6/2008 legea argitaratu da; hizpide dugun arloko legeria osatzen du, eta, aldi berean, aipatu EKL aldatu zuen.
99. Araudiaren esparruan, kooperatiben araudia dekretu hauen bidez garatu da: Euskadiko kooperatiben legearen erregelamendua onesten duen martxoaren 29ko 58/2005 Dekretua, Euskadiko kooperatiben erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua onesten duen martxoaren 29ko 59/2005 Dekretua eta gizarte-ekimeneko kooperatibak arautzen dituen apirilaren 4ko 61/2000 Dekretua.



100. Gauzak horrela, aurreratu dugun moduan, batez ere arrazoi nagusi honen ondorioz egin da erreforma: aipatutako legezko testuak bateratu egin dira, denborarekin kooperatiben erregimenaren arabera aldatu direlako, indarrean dagoen araua errazago identifikatzeko eta aplikatzeko; hau da, araua interpretatzeko eta aplikatzeko behar besteko segurtasun juridikoa emateko.
101. Bide batez, mailaz igo dira igoera hori merezi zuten erregelamenduen eduki jakin batzuk. Gainera, bilduma horrek, zioen azalpenean adierazten den bezala, harmonizazioa gaineratzen du, batez ere terminologian eta izatezko arrazioan, baita zenbait konponbide juridiko ere, aplikatzean zehaztasun falta duten edo zalantzak eragin ditzaketen araudiko elementu jakin batzuk argitzeko.
102. Hala, aurreproiektuan jasotako agindu askok gaur egun indarrean dagoenaren idazketa berdina dute, eta beste batzuetan, zenbait aldaketa egin dira aurreproiektua onestean edo zuzentzean, nahiz egokitzapen teknikoak edo argitzeko egokitzapenak egin ostean sortutako nobedadeetara egokitzeko.
103. Aurreproiektuak, gainera, aurreko legealdian izapidetutako testuan sartu ziren berritasun gehienak errepikatzen ditu. Bertan sartu dira batzorde honek egindako iradokizunak eta baita beste aldaketa eta doikuntza tekniko batzuk, legegileak daukan konfiguraziorako tarte zabalaren barnean sartzen direnak. Aurrez adierazi dugun bezala, EAEk lehiarako tarte zabala dauka alde.
104. Berritasun garrantzitsuenen artean honako hauek aipatu behar dira: kooperatibetako lan-bazkideentzako galarazpenen eta nahitaezko bajen kasuen arautzea; ohiko batzar nagusia ospatzeko denborazko beharra; galerak berdintzeko erabil daitezkeen derrigorreko erreserba-funtseko portzentajeen ezartzea; eta, baita, bazkideak galerei aurre egiteko duen aldia urte batera arte luzatzea. Estatutuak aldatzeko exijentzia ere azpimarratu da, baldin eta itzultzeko eskubidea duten ekarpenak nahitaez bihurtu nahi badira kooperatibak baldintza gabe ukatuz gero itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpen; nabarmendu da, baita, ekarpenak itzultzea ukatzea enpresa-jardueraren bilakaerarekin zerikusia duen irizpide ekonomiko objektibo batekin lotu behar dela. Aurrekoari lotuta, kooperatiba-sozietate baten zatitzea eta banantzea arautu da kooperatiboa ez den erakunde baten alde; kooperatibak eraldatzeko baldintza batzuk ezabatu dira; bana ezin daitezkeen funtsen transferentziarako modu operatiboa malgutu da; eta, azkenik, kooperatiba-ondarearen kontzeptuak argitu dira. Gainera, likidatzaileei eta etxebizitza- edo irakaskuntza-kooperatibei lotutako berritasun batzuk ere badaude.
105. Edonola ere, 66/2016 Irizpenean aipatu bezala, kasu horietan helburu horretarako ezarritako legegintzako teknikak erabili ohi dira. Gure kasuan, Gobernuko Legearen 52.2 artikulua bi teknika aurreikusten ditu: artikulua jasotzen dituen testua egiteko



legegintzako ordezkari (oinarrizko legeen bidez adostu behar da), edo legezko testu bat baino gehiago bakar batean bateratzea (ohiko lege baten bidez adostu behar da).

106. Legegintza-eginkizuna eskuordetzea, bi modalitateetan, konstituzioaren testuaren antzera egituratuta dago —KEren 82.etik 85.era arteko artikulua eta 153.a) artikulua—, antolamenduaren multzo osoaren gainean aurreikusita. Hala, bertan ezarritako printzipioek muga eta baldintza jakin batzuk ezartzen dituzte, eta estatu-esparruan nahiz autonomia-esparruan aplikatu daitezke.
107. Kasu honetan, bigarren kasua hartu behar da kontuan. Indarrean dagoen legea aldatuko lukeen lege arrunt bat onetsi beharko litzateke, eta bertan emango litzaioke gobernuari bateratzeko gaikuntza. Kasu honetan, ordezkariak zehaztu behar du testu bakarra egitera soilik mugatzen den, besterik gabe, ala, horrez gain, bateratu beharreko lege-testuak arautu, argitu eta harmonizatu behar diren. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, egindako testu bateratuak, berme erantsi gisa, legebiltzarraren adostasuna beharko du (Jaurlaritzaren 52.2 eta 4. artikulua eta Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduko 192. artikulua).
108. Kasu honetan, Konstituzio Auzitegiak honako hau zehaztu du: «egia da, era berean, legegileak Jaurlaritzari legeak bateratzeko ematen dion eginkizunaren edukia berritzailea dela, eta hori gabe ez lukeela zentzurik izango legeak egiteko eskumena eskuordetzeak». Zuzendaritza honek honako hau baieztatzen du: «testu bateginak indarrean jartzen direnetik aurrera legezko xedapen bateratuak (indargabetu egin dira, eta une horretatik aurrera ez dira aplikatuko) ordeztu dituen, funtsezko judizioa dakar beti bateratutako aginduak sistematikoki interpretatzearen gainean, batez ere Konstituzioaren 82.5 artikuluan aurreikusitako bigarren bateratze motan; hau da, bateratu beharreko legezko testuak arautzeko, argitzeko eta harmonizatzeko eskumena dakar; otsailaren 6ko 13/1992 KAEn esan dugun bezala (16. OJn), bateratu beharreko arau osagarriak zehazteko, eta hutsuneak betetzeko. Horretarako, batu behar diren lege-testuen garbiketa teknika egin behar da manuak argitu, bateratu eta aurreko erregulazioen antzemandako desadostasunak eta antinomiak kenduz.» (166/2007 KAE, uztailaren 4koa, 8. OJ).
109. Hala, testu bateratuak arlo horretako erregulazioaren berri izatea errazten du. Izan ere, hori onesteak esan nahi du arau bateratuak indargabetu egiten direla. Teknika bat edo beste aukeratzea baldintzatuta egon daiteke aldatzen diren arauen garrantziaren arabera edo indarrean dagoen antolamenduan aldaketa sistematikoak egitearen arabera, besteak beste.
110. Berezitasuna segurtasun juridikotik dator —EKren ex 9,3 artikulua—, aplikatu daitezkeen antolamendu juridikoaren eta arlo juridikoan tutoretzapean dauden interesen gaineko ziurtasuntzat jo daitezke (15/1986 KAE, urtarrilaren 31koa, 1. OJ); besteak beste,



herritarren artean zuzenbidea aplikatzean boterearen jarduketa zein ote den jakiteko sortutako zentzuzko itxaropena (36/1991 KAE, otsailaren 14koa, 5. OJ) edo legegilea argia izatea eta arauak nahasterik ez eragitea (46/1990 KAE, martxoaren 15koa, 4. OJ).

111. Hori horrela, testu bateginak ez du berritzen antolamendu juridikoa, indarrean dauden xedapenak ematera mugatzen baita. Aurreikusitako araudiak eskuordetzearen baldintzak errespetatzen ote dituen soilik aipatzen du, eta, alderdi juridikoei begiratuta, testu bateginean kasuan kasuko xedapenak behar bezala bateratu diren aztertzen du. Dena den, testu osoa egitea aukeratzen bada, kasu honetan bezala, analisiak beste dimentsio bat du; izan ere, aurrekoa ordeztu duen beste eskubide bat dugu hizpide, nahiz eta artikulua gehienek eduki berdin-berdinak izan. Gauzak horrela, aldatu egin da onesteko dagoen arauaren analisiaren ikuspuntua. Horrenbestez, beste mota bateko ikuspuntuak hartu behar dira kontuan, edo, bestela, indarrean dagoen araudia aldatu behar da, eta, ondorioz, trafikoa juridikoa arriskuan jarriko litzateke.
112. Beraz, aurreproiektuaren edukia aztertuta, Batzorde honek uste du kasu honetan justifikatuta egongo litzatekeela EKLri buruz proposatutako aldaketa alde aurretik egitea, eta, era berean, Jaurlaritzari baimena ematea, aldatutako arauan bertan, orain hizpide dugun bateratzea gauzatzeko, kontuan hartuta eskuordetzeko teknika horren bidez eskumen zabalak eman daitezkeela.

B) Euskal foru-zuzenbide zibilaren eskuduntza

113. Eskuduntzen azterketara zuzendutako atalean islatu dugun bezala, harreman estua dago kooperatiben gaiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren (EAE) 10.5 artikuluan ezarritako eskumen-tituluaren arloaren artean. Horren arabera, berariaz Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da «Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan berezkoa den zuzenbide zibila, foru-zuzenbidea eta zuzenbide berezia mantentzea, aldatzea eta garatzea (idatzizkoa edo ohiturazkoa), eta indarrean egongo den lurralde-eremua zehaztea».
114. Lege-proiektu batek oinarri hartuko dituen oinarri juridiko gaitzaileak esplizitu egitea, eta, hortaz, erabilitako eskuduntza-tituluak ere argi eta garbi adieraztea beti da legegintzako teknika landu baten adierazle (lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak idazteko bigarren gidalerroko 1.2 apartatua, 1993ko martxoaren 23ko gobernu-kontseiluaren akordio bidez onartuak). Eta, segurtasun juridikoko printzipioaren funtsezko elementu gisa, arautze egoki baten printzipioen esijentzia ere badira, zeinen arrazoen azalpenean egiten den justifikazioa berariaz eskatzen duen oinarritzko araudiak (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua 1. eta 4. apartatuak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena).



115. Baina, gainera, foru-zuzenbide zibilarekin edo autonomia-erkidegoko zuzenbide bereziarekin harremana duten arauen kasuan, titulu hori berariaz aipatzea, edo ez, bereziki garrantzitsua da segurtasun juridiko horri dagokionez; izan ere, ez aipatzea erabakigarria izan daiteke kasazio-errekurtsoaren ondoretarako organo judizial eskuduna zehazterako orduan, zeina Auzitegi Gorenaren lehenengo epaimahaiari edo Justizia Auzitegi Nagusiaren epaimahai zibil edo penalei esleitzen dakiekeen (Prozedura Zibilaren Legearen 478.1 artikulua bigarren letrakada, urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea). Hala, Auzitegi Gorenak berak ere eskuduntzako tituluaren aipu espezifikoak jardu «irizpide seguruenentzat» zalantza horri erantzuna emateko, eta, hortaz, «arau autonomiko bat foru-zuzenbide zibilekotasat edo berezikotasat hartu ahal izango da dagokion legegintzako biltzarrek, Konstituzioaren 149.1-8. artikulua egotzen dizkion eskuduntzen jardunean, onartu badu» (hala jasotzen da, adibidez, 2015eko martxoaren 3ko autoetan, zuzenbide zibil galziarrari buruzkoetan, eta 2015eko maiatzaren 20koetan).
116. Hori horrela, segurtasun juridikoa dela-eta, eta araubide hori, Auzitegi Gorenak ezarri duen bezala, «ezin denez autonomia-erkidego horren zuzenbide zibil bereziaren kontzeptutik kanpo gelditu», egokia litzateke arazoak azaltzen dituen lehen apartatuan berariaz aipatzea eskuduntzaren erreferentzia hori, Autonomia Estatutuaren 10.5 artikuluan jasotzen dena, aipatutako izaera nagusikoaz gain, 10.23 artikuluari lotuta.

C) Kooperatiba-sozietate txikia


117. Argitaratutako lege-testuak testu bategin bakar batean biltzea asmo izateaz gain, azalpen-zatiak Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikien Legeak indarrean jarraitzen duela adierazten du, «izan ere, bere ezaugarri bereziak direla-eta, lege propioa eta behar bezala desberdindua behar duen kooperatiba arautzen du, zeina lege nagusiak gehigarritzat hartzen duen. Arau horrek, hain zuzen, antolaketa-egitura konplexu bati erantzuten dio, barnean hartuz, oreka sistematiko batean, kooperatiba mistoak ez ezik, mota eta maila ezberdinetako kooperatibak. Kooperatiba-sozietate txikien erregulazio-araua lege honetan txertatuz gero, oreka hori apurtu egingo litzateke».
118. Edonola ere, arazoien azalpenean aipatu eta justifikatzeaz haratago, ez dugu zirkunstantzia horren inolako erreferentziarik aurkitu parte xedatzailean. Horri dagokionez, komenigarria litzateke arauaren aplikazio-eremuaren partikularitasun hori islatzea, araua argitzen lagunduz. Helburu horretarako, azken xedapenetatik bigarrena erabil liteke erreferentzia hori txertatzeko, aintzat hartuta, betiere, beranduago horri buruz egingo ditugun oharrak.
119. Kontrara, 150.3.b) artikuluan badago kooperatiba txikiaren erreferentzia bat, kooperatibari aipua kentzeko prozeduraren informazioaren izapidearen barnean zehazki. Arauaren koherentzia mantentzeko, komeni da eduki hori Euskadiko



Kooperatiba Sozietate Txikien Legea pasatzea, horretarako xedapen gehigarri bat erabiliz.

D) Administratzaileen erantzukizuna

120. Aurreproiektuak, memorian jasotzen den bezala, gobernu korporatiboari buruzko oinarrizko alderdiak jasotzen ditu, abenduaren 3ko 31/2014 estatuko Legean ezarritakotik eratorrita (Gobernu Korporatiboa Hobetzeko Kapital Sozietateei buruzko Legea). Ildo horretan, moldatu egin da EKLren 47. artikulua zaharra, aurreproiektuaren 50. artikulua bitartez, zeina administratzaileen erantzukizunari dagokion. Honako erantzukizun hau ezartzen da: «Administratzaileek izango dute legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz sorturiko kalteen erantzukizuna, baita karguari dagozkion funtzioak gauzatzean eragindako kalteena ere, betiere dolo edo erruz jardun badute. Erantzukizun hori zenbatesteko, kontuan hartuko da ea administratzailearen kargua ordainpekoa den ala ez».
121. Arreta deitzen du aipatutako artikulua amaierako aipamenean indarreko artikulua mantentzea, erantzukizunen mugaketa edo mailaketa sartu nahi duena, kargua betetzeko profesionaltasun handiagoa ala txikiagoa zehaztearekin batera. Nolabaiteko aringarria edo salbuespena binomio honetan oinarrituta egongo litzateke: ordainsaria versus doakotasuna.
122. Erantzukizuna ezartzeko, kasu horietan, aldi berean gertatu beharko dira dagokion kargua gauzatzean, doloa eta kulpak izan duen portaera baten bitartez kaltea eragitea, eta, gainera, bien artean kausazko lotura egon behar du, horrek ekarriko baitu administratzaileek eragindako kalteen gaineko erantzukizuna izatea.
123. Betebeharren teoria orokorraren arabera, erantzukizuna eginkizunak behar bezalako arduraz jokatzu betetzean datza. Betebehar hori testuaren 49. artikuluan jasotzen da, administratzaileen betebeharrak ezartzen baitira. Hala, dagozkien eginkizunetan, enpresaburu ordenatuaren arduraz jokatu beharko da, kargua leialtasunez eta fedez beteta.
124. Eskakizun horretan, bestela ezingo lukeen eran, ez da aintzat hartuko kargua ordainduta edo ordaindu gabe betetzen den. Hori horrela, administratzaileen obligazioak ezartzerako orduan obligazio horiek berdina dira denentzako, eta ezingo dira murriztu kargua ordaindu gabe betetzen delako. Jakintzat ematen da fedea oneko jarrera izango dutela, eta dagozkien eginkizunetan, behar bezala arduraz jokatu dutela. Hala, kooperatibaren funtzionamendua zein den jakin beharko dute, informazioa jasotzeko betebeharra aintzat hartuta. Era berean, betebeharrak zehaztean, karguari dagokion dedikazioa egotziko zaie. Ez da logikotzat jotzen beren obligazioak prestasun edo leialtasun gutxiagorekin bete ditzaketela estimatzea karguaren ordainetan dirurik jasotzen ez dutelako.



125. Aipatzekoa da Justizia Auzitegiak 2002ko uztailaren 4an emandako epaia. Honako hau adierazten du:

Oro har, Zuzendaritza Kontseiluko kideen jokabideak irregulartasun larriak ditu administratzaile gisa dituzten betebeharretan (aurkatutako epaian jasotzen dira), baina ez ditu egoera horretatik salbuesten «nekazariak, eta, gainera, oinarrizko kooperatibako kide izateak; hots, merkataritza jarduerara oso ohituta ez dauden, eta bileretara maiztasunez joaten diren pertsonak, kooperatibaren egunerokotasunean beste ezertan baino gogo gehiagorekin jarduten dutenak, (askotan, gainera, erakundearen benetako funtzionamendua ezagutzeko). Funtzionamendu hori zuzendari edo gerente komertzialek gauzatzen dute, eta horien esku uzten dituzte eginkizunak», zioan adierazten den bezala; izan ere, ez zuten jokatu administratzaile bati eskatzen zaion oinarrizko zuhurtziarekin.

126. Beste kontu bat da, aintzat hartuta erakutsitako arduran eta tartean egon daitezkeen inguruabarretan aldaketak egonda, erantzukizuna bera sortu zen unearen ostean zehaztu daitekeela. Hori bai, kapitulu honetan ulertu behar dugu erantzukizuna gauzatzean, modulazioa erabakimen judizialaren barruan sartzen dela. Hala, Kode Zibilaren 1.103 artikuluan honako hau adierazten da: «Axolagabekeriaren ondoriozko erantzukizuna ere exijitu ahal izango da mota guztietako betebeharrak betetzeko, baina kasuen arabera, auzitegiek moderatzeko aukera egongo da».
127. Horrenbestez, konponketaren osotasun-irizpidea ez denez kontzeptu absolutua, onartu egin da tartean dauden inguruabarren arabera moderatu ahal izateko aukera. Gure kasuan, nagusiki erruaren intentsitatea hartu behar da kontuan, eta epaitzen duenaren hautazko eskumenaren arabera egongo da. Dena den, testuan karguaren kostu bidearen araberrako aldakortasun-eragile bat mantentzeak arazo gehiegi ekar ditzake berau aplikatzean.

E) Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa gizarte-eragiletzat hartzea

128. 145. artikulua gizarte-eragiletzat jotzen du Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa parte-hartzean, eta Euskadiko kooperatibagintza osoa ordezkatzeko du.
129. Testuko 153.3 artikulua adierazten duen bezala, konfederazio batek Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden kooperatiba-federazioen ehuneko hirurogei biltzen badu gutxienez, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa izango da haren izena.
130. 66/2016 Irizpenean aipatu genuen bezala, gizarte-eragilearen kontzeptua KEren 7. artikulutik eratorrita dago hasiera batean. Artikulu horretan, langileen sindikatuei eta



enpresa-elkarteei eginkizun hori aitortzen die, berezkoak dituzten interes ekonomikoak eta sozialak defendatzen eta bultzatzen laguntzen baitute. Gainera, 131.2 artikulua bidez ezartzen da sindikatuek eta profesionalen eta enpresaburuen beste erakunde batzuek nahiz erakunde ekonomikoek plangintza ekonomikoan parte hartuko dutela.

131. Begi-bistakoa da azken urteotan gizarte-eragileak gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari direla diseinuan, lan-esparruarekin lotuen dauden politiketan ez ezik, bestelako politika sozial, sektorial edota ekonomikoetan ere bai. Gainera, beste era batzuetako kolektiboak sortu dira, eta bizimodu sozial eta ekonomikoaren eragin-eremuan sartzen dira.
132. Hori bai, gure analisisian oinarrituta, komeni da zehaztea gizarte-eragilearen kontzeptua orokorra dela, funtsean, erakundeen esparruan jardun eta parte hartzen duten eragile guztiak hartzen dituelako barne. Kolektibo orokor bati dagokio gizarte-eragiletzat jotzea, baina ezin da egotzi *intuitu personae*. Euskal kooperatiba-mugimendu osoan esan daitekeen kontzeptu bat da, baina ezin dena, gure kasuan, ez eksklusiboa ez enpresa-talde zehatz baten baztertzaila izan.
133. Hala, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa beste enpresa-elkarte bat da, eta, oro har, gizarte-eragiletzat jotzen diren askotariko enpresa-elkarteen, enpresa-federazioen eta enpresa-konfederazioen multzo zabal baten parte dira.
134. Are gehiago, gure eremuan ezin dugu aurretiaz kooperatiba desberdinak bilduko dituen beste elkarte, federazio edo konfederazio baten existentzia posiblea baztertu, beren aldetik, gainera, kooperatibako enpresa-multzoaren parte egingo dutenak eta zeinei hasiera batean ezin zaien ordezkagarritasunik ukatu.
135. Beste gauza bat da zer ordezkaritza duten erakundeen edo bestelakoen partaidetzan. Ordezkagarritasun hori, normalean, kooperatibaren eremuan edo enpresa- eta sektore-eremuan edo orokorrean duten ezarpen mailaren arabera egiten da.
136. Kasu honetan, Konstituzio Auzitegiak uztailaren 29an emandako 98/1985 Epaian adierazi zen bezala, «erakundeak administrazio publikoetan edo estatuko nahiz aurreikusita duten autonomia-erkidegoko beste erakunde eta organismo batzuetan ulertu behar da legea estatuan edo autonomia-erkidegoan ordezkaritza-maila handiena eta txikiena duten sindikatuen ordezkaritza-ahalmena zehaztera mugatzen dela; hala ere, ez du eragozten autonomia-erkidegoek, antolatzeke dituzten eskumenak baliatuz, beren organoetan legezko izaera hori ez duten beste sindikatu batzuk sartzea» (aukera hori, bistan dagoenez, modu berean gauzatu behar da enpresa-elkarteetan). Hortik ondorioztatzen da estatuko legeriak nahitaez ezarri behar duela autonomiako legeak gutxienez bete beharko lukeen kopurua, baina, era berean,



balizko subjektuen zirkulua zabaldu ahal izango du, betiere horren harira KEren 14. artikulutik eratorritako konstituzioko eskakizunak betetzen badira.

137. Ordezkaritza hori aurreproiektuaren 146.2.a) artikuluan xedatutakoaren bidez bermatuta legoke jada. Bertan ziurtatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiba-mugimenduak ordezkariak izatea, eta bultzatu egingo da kooperatibagintzak ordezkariak eta solaskideak izan ditzan Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulta- eta erabakitze-eremuetan eta erakundeen ordezkariak duten organismoetan: ekonomia-, hezkuntza-, lan- eta gizarte-erakundeetan. Era berean, bultzatu egingo da hori pixkanaka araudian finkatzea.
138. Hau da, euskal kooperatiben mugimendua da, izaera orokorrean, gizarte-agente izaera edukiko lukeena, eta ez Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa eskusiboki. Edonola ere, komeni da ordezkagarritasun-irizpide bat ezartzea ordezkariak-partaidetza handiena Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari esleitzeko, eremuko erakunde esanguratsuen den aldetik. Horrek ez du esan nahi beste erakunde, federazio edo konfederazioari beren eremu sektorial zehatzetan ordezkagarritasunik ukatu behar zaionik.
139. Aurrekoarekin lotzeko, komeni da arreta deitzea momenturen batean Euskadi izena izateko baldintzak betetzen ez dituen kooperatiba-federazio bat ez existitzek egon daitekeen aukeraren gainean. Ildo horretan, kooperatibek Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluan duten ordezkariaren efektuetarako (154.3 artikuluan aurreikusten dena), formularen bat arbitra daiteke kooperatiben ordezkagarritasunari bidea emateko.

II ARTIKULUEN GAINEN BESTE ZENBAIT OHAR

140. **18.2 artikuluan** eta aurreproiektuaren beste zati batzuetan (**zioen azalpeneko IV. zenbakian eta 35.2, 41.2, 94.2, 97.1 eta 107 artikuluetan**), lehen zegoen testua aldatu da. Helburua da horren bidez identifikatzea zer epaitegi izendatu duen Botere Judizialeko Lege Organikoak (BJLO) kooperatiben oinarrizko zuzenbidearekin loturiko gai jakin batzuen berri izateko.
141. Eskumen-esparruari buruz hitz egitean aipatzen genuen bezala, araudiaren xede den oinarrizko zuzenbidea EAeri dagokion zuzenbide zibil bereziaren parte da, eta, beraz, ordena zibil horretako epaitegi eta auzitegi eskudunei dagokie horren berri izatea (EAEEko ex 14. art). Ordena horren barruan, epaitegi eta auzitegi ezberdinen arteko gaiak banatzeko eskumena ez dagokio EAeri, Botere Judizialeko Lege Organikoan ezarritakoaren arabera egingo baita. Gaur egun, lehen auzialdian, merkataritza-arloko epaitegietan egingo da, eta, apelazioan, kasuan kasuko gizarte-gaietako auzitegietan.



142. Hori dela eta, egiten diren aipamen guztiak ordena zibilaren inguruan edo ordena zibileko epaile eta auzitegi eskudunen inguruan egin beharko lirateke.
143. **48.2 artikuluan**, zuzendaritza-kontseiluaren batzarrak ospatzeari buruzkoan, komeni da zehaztea, akordioak bideokonferentzien edo antzeko metodoen bidez hartzen badira, zein leku hartuko den akordioak onartu izanaren lekutzat (oro har, kooperatibaren egoitza sozialean hartuko dira).
144. **100. artikuluan**, erregistro-ezerezteari buruzkoan, aukera sartu beharko litzateke kontserbatu behar den dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez gordetzeko, eta ez soilik bitarteko tradizionalen bidez.
145. **118.3. artikulua**, lagapen erregimeneko etxebizitza-kooperatiben erregimenari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitzari Buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen (EAEEL) hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bateratu beharko litzateke. Bertan arautzen da bizitegien sustapena eta eskuratzea. Irabazi asmorik gabeko elkarteek sustatuko dituzte, lagapen erregimenean.
146. Zehazki, komeni da aipatzea bazkide baten bajaren eta bere erabilera-eskubidearen eskualdatzearen kasuetan zuzendaritza-batzordeak egiten duen esku-hartzea besterentze horretan irabazi asmorik edo asmo espekulatiborik ez dagoela bermatzeko egiten dela.
147. Azkenik, aintzat hartu da **bigarren xedapen iragankorrak** egungo estatutuak aplikatzeko formula bat ezartzen duela, eta horiek isilbidezko aldaketa aurreikusten duela. Ildo horretan, segurtasun juridikoa lortzeko asmoz, komeni da epe bat ezartzea estatutuak eta haren ondorioak legera egokitzeko.

III LEGEINTZAKO TEKNIKA-ARLOKO OHARRAK

148. Araugintza-teknika dela eta, Batzordeak gogorarazten du aurreproiektuak egokitu egin behar duela, oro har, legearen proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsitako gidalerroetara, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren arabera aplikagarriak direnetara.
149. Horietan adierazitakoari jarraituz, ohartarazpen hauek egin dira, teknikoki osoagoa den arauzko produktu bat lortze aldera.
150. **Zioen azalpenaren** lehen apartatuaren barnean, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikien Legearen laugarren xedapen gehigarriaren bitartez egindako aipatutako Euskadiko Kooperatiben Legearen aldaketa, Legearen aldaketa egitera bakarrik



zuzendutako xedapena ez den aldetik, arauaren aldaketa eragin zuen xedapen zehatza aipatuz idatzi behar da lehenik eta behin, arauan non kokatzen den aipatzearekin batera. Bukatzeko, aipatu beharko litzateke horrek berak eragin zuela Euskadiko Kooperatiben Legearen aldaketa.

151. Zioen azalpenaren III. apartatuan Kapital Sozietateen Legeari egiten zaion aipamenak bere izen ofizial osoari egin beharko lioke erreferentzia.
152. Zioen azalpeneko IX. apartatuan kooperatiben «eraldaketaren» erreferentzia ezabatu behar litzateke, gai hori X. apartatuan lantzen baita, tituluan adierazten den bezala.
153. Gaztelaniazko jatorrizkoaren zioen azalpenaren XII. apartatuko azkenurreko lerrokadan, «... por las singulares características esta clase...» esaldian «de» preposizioa sartu behar da, esaldiak zentzua izango badu.
154. Zioen azalpeneko XIII. apartatuaren azken tartekia berrikusi egin beharko litzateke, esaldia osatu edo, hala badagokio, behar ez den lerrokada ezabatzeko.
155. Gaztelaniazko testuan, «personas terceras no socias» erabili beharrean, «terceras personas no socias» erabili behar da, gramatika-zuzentasuna kontuan hartuta.
156. **32.1.b).** artikulua arabera, administrazio-organoa da kooperatiba ororen ezinbesteko organoa. Parte xedatzailean ez dagoenez organo mota horiek berariaz definitzen dituen artikulurik, gomendagarria litzateke bertan adieraztea zuzendaritza-batzordea edo administrazio bakarria izan daitezkeela.
157. **88.5 artikulua** «eta/edo» juntagailuak tartekatzen ditu ezarpena eta aukera aldi berean zehazteko. Baina gramatikan ezin da onartu; izan ere, oro har, «edo» juntagailuaren balioa eman nahi zaio. Beraz, gauza bat edo bat baino gehiago izan daitezkeela adierazi nahi denean, «edo» soilik erabili behar da; «eta» juntagailua, berriz, konbinazioaren bi kontzeptuak barne hartzen direnean soilik erabiliko da; hau da, gauza bat eta bestea —biak batera— izango dela adierazteko. Balio berbera izango du 103.4 h), 129.1 eta 133 artikuluetan.
158. **132.2. artikulua**, kooperatiba txikiei buruzkoan, sailkapenaren arrazoia kalifikatu beharko litzateke, sailkapena galdu izanaren jakinarazpena «dagokion» sailkapena edo sailkapena «berriro» egiteko dela adieraziz.
159. **III. tituluaren** izenean egokiagoa litzateke administrazioa «publikoa» dela zehaztea, artikuluen edukia koherenteago islatuz.
160. Euskal Autonomia Erkidegoko Ondarearen Legearen aldaketa, **zazpigarren xedapen gehigarriaren** bitartez egiten dena, azken xedapen baten bidez egin beharko litzateke,




hori baita modu egokia «indarreko zuzenbidearen aldaketa-klausulak islatzeko, arau baten aldaketa ez denean xedapenaren helburu nagusia».

161. **Azken xedapenetatik lehenengoa**, araua indarrean jartzeari buruzkoa, azken xedapenen amaieran jarri beharko litzateke, hori baita arauaren denbora-eraginkortasunari buruzko arauak barnean hartzen dituenak.
162. **Azken xedapenetatik bigarrena**, aplikazio-eremuari buruzkoa, artikuluen barnean kokatu beharko litzateke, xedapen orokorren kapituluan zehazki; izan ere, bere edukia arauaren gai nagusiari lotuta dago eta ez aldaketa-klausulei, osagarritze-arauei, jarduketa-mandatuei edo arauaren eraginkortasun orokorrari buruzko arauari, zeinak azken partean kokatzen diren mandatuak baitira.
163. **Azken xedapenetatik hirugarrena**, bere aldetik, nahiz eta mandatu osagarri normatiboaren nolabaiteko izaeraduna izan, hobeto egokituko litzateke kooperatiba motak lantzen dituen kapitulura; izan ere, araudiaren arabera beste kooperatiba mota batzuk sor daitezkeela adierazten da zirkunstantzietan hala gomendatzen dutenetan, legezko testuan definitzen direnez gain, horretarako definitutako izapideak erabiliz.
164. Azkenik, **oro har**, komeni da artikulua jakin batzuen egitura aztertzea, irizpide bakar bat erabiltzeko artikuluen edukia barnetik sailkatzeko.
165. Halaber, artikulua batzuek zenbakirik gabeko hainbat lerrokada dituzte, eta komeni da horiei zenbakia jartzea (lerrokada bakarra badago, ez da beharrezkoa). Lerrokada batzuk horien barruan dauden zatitzat jotzen badira, letrak erabiliko dira; hau da, letrak erabiliz azpibanatuko dira. Azkenik, hasiera batean, apartatuak ez dira azpibanatu behar, baina, kasu berezietan beharrezkoa denean, zati bakoitzari zenbakiak jarriko zaizkio (1., 2., 3. [...]).
166. Gaztelaniazko testuan, hizkuntza ez-sexista erabiltzeko, «socios» beharrean, «personas socias» erabili behar da. Ildo horretatik, «socios trabajadores» beharrean, «personas socias trabajadoras» terminoa gomendatzen da gaztelaniazko jatorrizkoan.

ONDORIOA

Batzordearen irizpena da, txosten honen mamian egindako oharpenak kontuan hartu ostean, Legearen aurreproiektua Jaurlaritzaren Kontseilura bidal daitezkeela, onetsia izan dadin.



Eta hala ziurtatzen dugu, Gasteizen, 2018ko azaroaren 30ean, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharrak gogorarazi nahi dugu: azkenean onartzen den xedapen edo ebazpena Batzorde honi komunikatu behar zaio, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamenduaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean (irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori).

O. E.:

Jesús María Alonso Quilchano,

Idazkaria

Sabino Torre Díez,

Lehendakaria